

Juan Gorostidi. *Tai Chi Chuan* eskola, 22 urte eta gero

Laborategi baten premiaz

1991n abiatu zen *Tai Chi Chuan* eskola. Bere egoitzako lanek eragindako tarreak aitzakia ematen digu 22 urte haue-tako balantze moduko bat egin eta eskolaren jarduteaz hitz egiteko. Nolako grinak bultzatu zuen eskolaren proiektua? Bada joera bat gauzei modu “substantzial” batean erreparatzeko: “taitxia den modukoa da, zer axola du denborak edo lekuak?”... Baina taitxia ere ezin konpreni historiaren gorabeheretik at, ezta gure egoera partikularretik at ere. Joan den mendeko azken hamarkadan, 90ekoan, hasten da europar askorentzat mende berria: erori da Berlingo harresia, desegin Europa Ekialdeko erregimenak... Nolabaiteko lasaitzea gertatzen da gerra orokorrak markatutako hamarkada luzeen ondoren, eta etorkizunera zuzendutako ikusmira zabaltzen. Aro berrien gaineko galderak nabarmentzen dira, ordura arte ezagutu gabeko sasoi baten atarian, *Historiaren amaiera* gisa ere aldarrikatua. Europako gerra handiak bizi eta irauten asmatu zutenen seme-alabak izan eta lehen gaztaroa gerra giro hura erabat gaingitu gabe pasatakoak gara. *Gerra Hotzaren* garaian ere zaila zen neutral ibiltzea, eta 68koaren ostean, “alternatibean eraikitzea” zen gazte askoren betebeharr nagusia: *kapitalismoa* vs. *kominismoa* ekuazioa gaingitu zitekeen, ustez; bide berriak jorratu arlo askotan: produkzioan eta lanean, familian, eskolan, osasungintzan, artean... Batera zetorren, askorentzat, nagusien aurkako gartzetasunaren berezko errebeldia, giza joerekin esperimintatzeko laborategi premien sentipen larriarekin. Giro horretan kokatu behar da hain zuzen ere Ekialdeko sistemen inguruko interesa, bizi jarrera berrietan oinarritutako zerbaiten esplorazio baten irrika...

Gauza hauetan zegoen 80 eta 90eko hamarkadetan taitxira hurbiltzen zirenen burua?

Ez modu berdinean, baina esanguratsuen haxe da: joera batzuk bazirela arriskuak hartzeko, hausturak gauzatzeko esperientzia berrien kariatara. Egungo sasoietatik begiratuta, ez da aski hura guztia ulertzeko gaur indarrean diren zenbaiten “prozesu kurrikular” edo “bidaia” partikular gisa kontsideratuak izatea. Bazen jendea familiarekin edo heziketa modu jakinekin hausturan ahalegintzeko gai zena; landa girora aldatzeko, fabrika unibertsitatearen ordezkari izateko edo Ekialderako bere bidaia egiteko, eta ez “aukera pertsonal” soil gisa, handiagoa zen zerbaiten parte izateko xedez baizik..

“gorputza, oldarkortasuna, espazioa, isiltasuna... zenbait gairekin jarduteko laborategi bat sortzeko premiatik abiatu ginen”

Eta dagokigunaz, taitxi eskola bat Donostian 1991n...
Niri dagokidanez, gerora *fitness* eskaintzan aukera arrakastatsu bezala ikus zitekeenak ez zekien ezer modaz eta merkatu legez; guztiz bestela, aipaturiko bulkadatik sortua zen, zenbait gairekin jarduteko laborategi bat sortzeko premiatik: gorputza, oldarkortasuna, espazioa, isiltasuna... *Tai Chi Chuan* eskolara hurbildu ziren gehientsuak hogeita hamar urte ingurukoak ziren eta asko maisu eta irakasle edo osasungintzako langileak, zentzu zabalean, berdin psikologoak edo medikuak; baita profesio liberaletakoak ere. Lanean urte gehiegi gabe, beren egunerokotasunean arruntak ez ziren zenbait ohi-tura ikasi eta kokatzeko gogoz hurbiltzen zirenak.

Eskaintzen denak badu izen bat: taitxitxuan...

Bai, hori guztiori ahalbideratzen saiatzeko gai zen, ez baitzen oraino *merkatu produktu* gisa kolonizatua, aurrerago ezinbestean gertatu bezala. 1991ko eskolaren zabaltzeko egin genuen buletinari erreparatuta, lau izen eta bere artikulak agertzen ziren aurkezpen gisa: Tew Bunnag, José Luis Paniagua, Yves Requena eta Dhira-vamsa. Laurak ziren nire irakasle, baina azpimarragarriena hemen, zera da: bakoitza bere eremuan geuk nahi genuen esperimintaziorako atebideak markatzen ari zela. Tew, taitxi maisu tailandiarra, bere jaioterrian eta Ingalaterran hezia zen eta gure ikuspuntua laburtzen zuen; Paniagua, Madrileko TEAM *Taller Experimental de Artes Marciales*eko zuzendaria eta biokimikoa, lehe-



na zen gaztelaniaz qi edo agresio kontzeptuak diziplina hauetan mendebaldeko hizkera psikodinamikoan itzuli zituen; Requena, sendagile frantsesa, qi gong/txikungeko ariketak eta sistemak gure hizkuntza fisiologiko eta medikoan ematen zituen; eta Dhiravamsak, *vipassana* meditazio maisu ezohikoak, urte luzeak zeramatzen Ingalaterra eta Ipar Amerikako terapeuta entzutetsuekin elkarlanean. Zenbait baldintza betez gero, nahi genuen laborategia bideragarria zen.

Zein baldintza?

Gure helburua ez zen Ekialdeko *fitness* produktuen frankizia bat, edo “espiritualitate berrien” enegarren gunea ezartzea, aspalditik Ameriketara gertatzen ari zenaren antzera. Goian aipatu izenek elkarrekin zerbait baldin bazuten, beren gaitasun *itzultzailea* zen: bakoitza bere erara zubiak eraikitzen ari zen, eta zubi horien bi aldeak tentatzen. Zubiak pasabideak dira, eta beren bi aldeetan ipintzen direnak beren buruak aldatzeko gaitasuna dute. Gure asmoa ez zen “fedea” berri baten jarraitzaile edo zerbaiten *zale* bihurtzea, izan taitxia, txikungo edo era bateko edo besteko taoismo edo budismo exotikoen jarraitzaile. Teknika eta sistema horiekin esperimentatu nahi genuen gorputzean, harreman agresiboan edo isiltasunean kokatzeko baliagarri zaizkigun heinean. Guztiz bestela suertatzen da sistema bat edo besteren *zale* egin eta berauegan jartzen dugunean gure egin-kizun eta helburu bakarra. Kasu hauetan, bilatzen den bikaintasunaren lortze bidean, mehatxu gisa jasotzen dira edozein beste gogoeta edo inguruko galdera. Zer esanik ez helburuak ezartzeko orenean merkaturua eta *fitness* eskari berrien arabera mugitzen denaren kasuan. Bi joera nagusiok –bata “sakontasun” itxuraz eta bestea kontsumitzaileak berezko duen azalakeriaz–, urrundu egingo dute gaiok beste leku batetik tratatzen duen edozein: denok jakin badakigu sekulako aldea dagoela geure egoeraren eta sistemok sortu zutenaren artean, edo benetako esperimentazio batek zabalik behar duela aurreikusitako gabeko aldaera eta ondorioei bide emateko. Hori da laborategi baten legea: zerbaiten bila ibili azken emaitzak aurretik jakin gabe, eta baliabideak aldatzeko gaitasuna izan bideak gure helburuetatik urruntzen gaituenean. Batek helburua aurretik finkatua baldin badu –“tradizio” baten izenean edo aitzakian ezarria, askotan–, “gehiago”, “hobe” bezala ulertuko du prozesua, eta bikaintasuna teknika bat edo bestearen menderakuntzaren arabera neurtuko. Pentsa dezagun edozein artetan: ez da *artista* handiagoa teknika bat edo baliabide bat hobekien menderatzen duena; artista interpretatzaile da beti, agerian eta ezkutuan dauden errealitateen arteko bitartekari bat, esparru eta *interpretazio* berrien bilaketan dabilena.

Baina taitxia eta eskaintzen dituzuen gainontzeko teknikak soinketa modu bat dira, ariketa fisiko edo gimnastiko bat, beste hainbesteren artean, kuota baten truke orduka eskainiak... Nola uztartu gogoetok halako eskaintzan?

“Eskola” bezala agertzeak nolabaiteko anbiguetatean mugitzeko aukera ematen digu. Ikasketa bat lantzeko aukera eskaintzen da, berez ongari litezkeen zenbait ariketa egiteko tartea. Horretara hurbiltzen denak ez du

berehalako probetxu hori ez den ezer bilatu beharrik. Baina, aldi berean, edozein ikasketatan bezala, litekeena da, baldintza batzuk emanez gero, perspektiba aldaketa bat suertatzea. Horretaz ari gara “musikak –edo zinemak, edo mendiak...– biziera aldatu dit” esaten dugunean. Klase ireki batzuk eskaintzeak laborategiaren sotsengua eta autonomia ahalbideratzen ditu. Ordainetan, hurbiltzen denari gertatzen ari den esperimentazioaren partaide izateko aukera eskaintzen zaio...

“esparru fisiko hutsean konpondu ezin litezkeen paradoxen aurrean jartzen gaitu praktika honek behin eta berriz”

Zehaztu dezagun apur bat gehiago: soinketa eta fitness bezalako hitzak aipatu dituzu, zein da orduan zuen berezitasuna?

“Ariketa fisiko” egitea edo “gorputza zaintzea” ez da sasoi guztietan modu berean egin edo egiten den zerbait, leku eta kulturak gorabehera. Gorputzak badu objektibotasun bat, baina era berean, denboran zehar, bere izaera aldatzen duen zerbait ere bada. Hori belaunaldi bakarrean gerta liteke, gure askoren artean gertatu bezala: gurasoak nekazari izan, eta gu gizarte postindustrial bateko kide bilakatu gara, horrek dakarren haustura eta birkokatze guztiekin. Beti izan gara gorputzak baldintzatutakoak, baina gure dimentsio fisikotik



apenas bereizi gara orain gutxi arte. Gero eta gehiago, "objektu" bat da gorputza, gure interbentzioa eskatzen duena... eta hor sartzen gara bioteknologia bezalako gai korapilatsuetan, gorputza-objektu batekin baino pentsa ezin zitezkeen kontuetan. Nire aitari ez zitzaion burutik ere pasatzen "ariketa" egitea, ez behintzat lepoko lesio larri baten ondoren errehabilitaziorako zenbait ariketa egitera behartu zuten arte; gaur berriz, pentsa genezake kirola nolabaiteko erlijio zibil eta hiritar zintzo ooren betekizun bihurtu dela. Gorputzaren arretaz bizitzea ezinbestekotzat dugu egun, eta hala bihurtu dugu hainbat fantasiaren liskargune, non edertasuna, gaztetasuna edo boterea baitaude jokoan. Irakasgarria da testuinguru honetan taitxiaren ariketa, behin eta berriz jartzen baikaitu esparru fisiko hutsean konpondu ezin litezkeen paradoxen aurrean. Fisikoak berezko ditu kantitatea eta mekanika, eta kontuok modu sinplistan tratatzeko joerakoak gara. Nola lortu erlaxapen aktibo eta elastiko bat, gorputzaren atal guztien ekarpena eskatzen duena eta, aldi berean, kontrol zorrotz batek oztopatzen duena? Ba al dakigu zein prezio ordaindu behar dugun gure bizimoduan aurrera egiteko eta zenbait giza ahalmenen izaera autonomo garatu ahal izateko; pentsamendua, gogoa edo sentimendua, esaterako? Taitxiak proposatzen dizkigun ariketak ezinezkoak bihurtzen dira gorputzaren bizipen sakonik gabe: geldirik eta mugimenduan, erritmo ezberdinetan, bakarrik eta beste kide batekin kontaktu fisikoan... Eta duen zailtasuna erronka bihur liteke –zenbait abileziaren lorpenarako, gorputz-objektu horren bezan—. Edo *gorputza ere* izan behar horren zentzua bizi eta kudeatzeko gune aproposa, jakinda betiere "gorputza soilik" izatearen ezintasuna. Askotan komentatzen dut "artista martzial" dohatsuenak ere ezingo duela inoiz kale katu baten mailako grazia eta mugimendu ekonomiaren mailarekin lehiatu. Alde horren gunea da gure esperimentaziora.

Kontaktu oldarkorra –agresiboa– aipatu duzu, baita martzialitate ere. Zer dago edo zer geratzen zaio horretaz taitxiari?

Agredire bestearekin harremanetan jartzea esan nahi omen zuen; horrek adierazten du zerbait, alegia, ez dagoela nolabaiteko *agresiorik* gabeko kontakturik. Ezin ahaztu, bestalde, zerikusi gutxi dugula guk aro feudaleko sistema hauen asmatzaile edo garatzaile izan ziren gudari haiekin. Egungo bizimoduan gero eta azalekoagoa dugunez materia fisikoarekin dugun kontaktua –ez bakarrik giza gorputzekin–, hutsune baten aurrean gaudela onartu behar. Kontaktu fisikoa zenbait kiroletan eta maila erotikoa baino ez da suertatzen gurean, garapen psikomotor osoa kontaktu fisiko nahiz psikikoari atxikia dagoen bitartean. Geuk mota bateko kontaktua aukeratzen dugu, "agresibitateari" lotutakoa, berezko lezakeen suntsipengarritasuna alboratuz; ariketa berez konpetitiboak esparru ez konpetitibo batera eramaten saiatzen gara... Indar fisikoarekin aritzen gara, indar horren absortzio gaitasunarekin eta, bereziki, norbere "eremuaz" jabetzearekin, eremu horren inbasio eta mantentzearekin. Miaketa horretan aritzeko baliatzen ditugu zenbait antzinako teknika, bakarkako eta taldeko gure egoera partikularrean.

Horretaz ari dira "Arte Martzialak" aipatzen dituztenak? "Arte Martziala" adiera fetitxe bat bihurtu da. Esanahi kontrajarriekin erabiltzen da autodefentsa edo talde parapolizialen jardueraz nahiz kungfu zaleen akrobaziez itxura ohoragarri edo exotiko bat emateko. Botere edo inbulnerabilitatezko zenbait fantasia maskulino dira horiek –ez oso sofistikatuak, egia–; halako iturri gerrero exotikoekin duintzea bilatzen dute oraino. Muturreko zenbait korronte feministak modu hauen zale agertzen badira ere, emakumeen presentziak joera hauen orekatzaile gisa funtzionatzen du gure taldeetan. Paradoxak beste behin: oldarkortasuna gune babestu eta ez konpetitiboan; erlaxazio elastikoa ekonomia martzialaren baldintza gisa, edo emakumeen presentzia ohiko esparru maskulinoetan...

"mota bateko kontaktua aukeratzen dugu, agresibitateari lotutakoa, berezko lezakeen suntsipengarritasuna alboratuz"

Taitxiak edo txikungak nonbait lortu badute zilegitasuna eta izen ona, osasunaren esparruan izan da. Azterketa kliniko askok goratu dituzte zenbait gaixoen egoera hobetzeko duten ahalmena, Parkinson gaixoen kasua da azken adibidea...

Gero eta esparru zabalagoa ari da hartzen "osasunaren" gaia gure gizarteetan, esparru aldakor eta labaina. Osasunaren izenean predikatzen da egun zalantzarik sortuko ez duen "Berri On" bakarra. Geure ariketek zenbait baliagarri sinple baina eragingarri erabiltzen dituzte, ariketa fisikoetan ohikoak ez direnak, onuragarriak soinketa egoki gisa. Lantzen dugun posturaren ekonomiarako, erlaxazio aktiborako edo mugimendurako atalen arteko interkonexioetarako sentiberatasuna haratago doa Mendebaldeko ohiko luzaketa, tonifikazio eta mugimendu ariketa sistemak baino. Hala guztiz ere, hori ez da gure jardueraren edo laborategiaren *gai* nagusia. Oso modu orokorrean esanda, gure jardueraren "alderdi osasungarria" ez dago hainbeste begi-bistako kontu horietan, baizik eta erabiltzen dugun hizkerak, kontaktu erak edo mugimendu erritmo jokoek esplorazio guneak sortzeko duten gaitasunean. Tamalez, ez da hori Ekialdeko maisuek adierazi ohi dutena beren ariketak "osasunerako" edo "helburu martzialekin" bereizten dituztenean. Sakontzen badugu, osasungarriena –patologikoena bezala– ikuspegi martzialean aurki liteke, edo horrek berezko duen miaketa espazialean... Urrats bat aurrera emanda, Ivan Illichen oharrarekin egingo dugu topo. 1975ean *Nemesis Médica* argitaratu ostean, non gizarte industrialaren osasun sistemaren kritika erradikala eta mediku tratamenduak eragile patogeno nagusi bezala aurkezten ziren, zehaztapen argi-

garri bat egin zuen hamabi urte beranduago: “Osasun perfektuaren bilaketa bihurtu da egun eragile patogeno nagusia”. Gure programa bizimodu sedentarioak edo edadearen ajeen ondorenak konpentsatzeko “gorputza zaintzetik” haratago doa. Gorputz alderdia *esplorazio eremu* gisa hartzen dugunean, gure giza izaera osoa da zabaltzen dena...

“*txikung* ariketek ‘erdiko eremu’ honetan barneratzea ahalbideratzen digute [eremu emozionala], modu intuitibo baina zuzenean”

Txinatarrek –Ekialdekoek, oro har– energiaz dihardute –euren qi edo ki–, eta hortik abiatzen dira bere osasun irizpide propioak adierazterakoan...

“Qi”, *txi* ahoskatua, “energia” bezala izan da itzulia Europan ezagutu zenean, XVIII.ean, garai hartan “energiaren loraldi bat” bizi zelako: alde batetik magnetismoa, bestetik argindarraren eta gainerako uhinen aplikazioen sukarra... Ez da hori klasiko txinatarren ideia *qi*-az ari direnean. Nire iritziz, itzulpen interesgarrienak eta baliagarrienak psikologia sakonek agerian utzi duten “emozio esparruaren autonomiarekin” du zerikusia; esparru hau arima eta gorputzaren dikotomiaren tartean zabaldu da, eta emozio munduen agerraldi honek aldatu egiten du gorputz eta izpirituaren arteko bikoiztasunaren izaera, bitartekari den hirugarren esparru bat “eraikiz”. Horrek ahalbideratzen ditu arlo fisikoan edo mentalean gertatzen denaren zenbait itzulpen ez soilik sentitibo edo sinboliko: bitik hurbil baina dikotomiatik at, alegia. Horretan datza *qi gongtxikung* ariketen interes sakonena, organo edo funtzio somatiko baten edo besteren onuragarri izateaz gain: “erdiko eremu” honetan barneratzea ahalbideratzen digute, modu intuitibo baina zuzenean.

Meditazioa ere egiten duzue eskolan.

Ekialdean nahiz Mendebaldean meditazioa monasterioetako bizimoduarekin dago lotuta, han-hemen sortu diren “erreserba espiritual” horiekin non zerbait onik gorde nahi izan den, egun galbidean dauden espezie edo tribuen “erreserba naturalen” pare. Bestalde, estresa doitzeko erakutsi duen gaitasunak ere eman dio egun halako prestigio bat, eta edozein hiritar zintzok beharko lukeen fitnessari *welnessa* gehitu beharko zaio berehala... Ezin uka zenbait luxuzko turismo, “zorientasun bide” eta “erlijioen itzuleraren” sasoi hauetan, sarkasmoari eta parodiari erraz ematen diotela bidea kontuok. Baina azal horien azpian, giza gogoaren izaerarekin parez pare jartzen gaituzten proposamen erradikalez ari gara: giza-ki egiten gaituen pitzaduraz, alegia, nabarmen azalera-zen den arrakala gure arreta helburu instrumentaletatik

haratago ipintzen saiatzen gareneino.

Badirudi taitxia eta inguruko tekniken moda izan zena igaroa dela dagoeneko, nola ikusten dituzu beren oraina eta geroa?

Ona dela iruditzen zait orain dela hamar edo hamabost urteko gorakada hura atzean utzi izana. Arrakasta hura Pazifiko iparrean piztu eta Europara eragin motelduekin iristen diren gertakariekin du zerikusia. “Arrakastaz hiltzeko zorian” egon ginen, ezen taitxiak azaleratzen dituen gaiak ezin ziren “Ekialdeko maisu” askok eta beren akolitoek kudeatu zituzten fribolitateaz landu. Beti sortzen da zalantza: ba al ziren eskuartearen zekar-tenaren benetako jabe? Eta izanda ere, prest al zeuden “material horiekin” Mendebaldean espermentazio bide berriei ekiteko, beren ondorio guztiekin? Eskaintzen zizkiguten “alternatibak” gure merkatuen gorabeheren marka kontuak baino ezer gutxi gehiago baldin baziren, goia jo eta berehala desagertzen diren horietakoak izango ziren... Hortik aparte, taitxiak eskaintzen dituen gaiak eta esparruen miaketak bere horretan jarraitzen dute, nire ustez, belaunaldi berriek espermentaziorako eremu interesgarriok zabaldu zain. Berehalako gratifikazioak laster zapuzten dira norbera bere mugekin topatzera bultzatua izan eta urrats bat aurrera jarraitzeko gonbidatua denean. Geuk horretan jarraituko dugu ahal dugun heinean.

Donostia, 2013ko negua

www.taichichuaneskola.com

